

JESUS ETA LAPUR ONA

1

Kalbarioan hiru gurutze
ta gizon bat bakoitzean,
lapur-lagunak biraoka ta
Jesus, barriz, otoitzean.
Hau ikusita, eskumakoa
ikututa bihotzean,
zeru ederra lapurtu eban
Jesusen heriotzean.

3

“Oi lapur lagun, zer diharduk hor,
hago mesedez isilik,
hamaika kalte egin juagu
eta banaka bat hilik.
Merezitako zigorra dok hau,
urkamendian zintzilik”.
Eta berari zer jazo jakon
autortu eutsan umilik.

5

Hau albistea lapurrak guri
gaur esanda jakitea:
Zeu zaitugula, Aitak jarrita,
zabalik dagon atea.
Jaso dogu, Zeuk erakutsita,
lapur-bidez albistea:
Zeure Bihotza dala atea,
emoidazu sinistea.

2

“Gomuta nitaz, Jainko Semea,
zerura zoazenean”,
Jesus onari begira dino
lapurrak sinismenean.
-”Neurekin zihur izango zara
betiko zorionean”,
leiho ta zulo danak baino hobe
atera jo zuzenean.

4

Lapurretarik onena hauxe:
betiko paradisia,
bertan sartzeko atezain Jesus,
bihotz-on errukitsua.
Zeru-ateko giltza eskuan,
jaso daigun abisua:
Lapur ta gaizto guztiontzako
aurkitu dogu maixua.

6

Gurutze baten beso-zabalik
hil zinan, Jesus laztana,
guk lapurretan egin kaltea
eta Zuk ordaindu dana.
Amaitu ~~guzan~~ hasi zenduan
Zure errukizko lana,
lapur onaren ondoan, Jesus
eiguzu lekutxo bana.